

# IRAKASLEAREN GIDA, EGILE-ESKUBIDEEN GAINEKO TREBETASUNAK IRAKASTEKO

Merja Kauppinen





© Kopioisto ry 2017

Testua: Kopioisto ry. Espainiarako bertsioan, CEDROk egokitu ditu materialak.

Irudiak eta diseinu grafikoa: Tarja Petrell / J&Co Digital Oy.

Eskuliburu hau egile-eskubideen irakaskuntzari buruzko sarrera labur bat da, Irakasle Eskolako irakasle eta ikasleei zuzendua.

Gidan, egile-eskubideen alorrerako tresna pedagogikoak topatuko dituzu.

Egile-eskubideekin lotutako ezagutzak eta trebetasunak irakasle baten lanbide-gaitasunen parte dira, eta beste baliabide profesional batzuk bezalaxe zaindu behar dira.

Egile Eskubideen Ikasgelako materialak Kopiratitilla du oinarrian –Kopioeto ry erakundearen ekimen bat–, eta CEDROk egokitu du haren baimenarekin.

Egile-eskubideen gaineko materiala pedagogiako eta egile-eskubideetako aditu-ek egin dute.

Merja Kauppinen Jyväskyläko Unibertsitateko Irakasleak Prestatzeko Departamentuko irakasleak diseinatu du Bigarren Hezkuntzako eta irakasleak prestatzeko zati pedagogikoa, eta, eginkizun horretan, taldekide izan ditu Susanna Mononen eta Mari Erho, Hizkuntza eta Literaturako irakasleak, Juha Kallanranta, egile-eskubideetan adituen gainbegiralea, eta Kirsi Salmela, abokatu eta lizentzien alorreko gerentea.

Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako materiala, berriz, Arja Kangasharju Hizkuntza eta Literaturako irakasleak, Marjukka Peltonen liburuzain espezializatuak, Henna Ylihärsilä irakasleak eta Juha Kallanranta eta Kirsi Salmelak diseinatu eta idatzi dute.

Materiala proiektu baten barruan egina da, eta talde haren zuzendaritza-taldean esku hartu dute Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusiak, Hezkuntza eta Kulturako Ministerioak eta Hezkuntza Sindikatuak (OAJ). CEDROk egokitu du, eta hark du materialaren gaineko lizentzia Espainian.

Ongi etorri Egile Eskubideen con punto al final.

## AURKIBIDEA:

1. Egile Eskubideen Ikasgelarako ongietorria: materialaren aurkezpena **s. 4**
  2. Egile-eskubideak ikasketetan, multialfabetatzearen parte gisa eta ikaskuntza-trebetasunak ikasteko **s. 5**
  3. Egile-eskubideen gaineko trebetasunak irakastea **s. 10**
  4. Egile-eskubideen gaineko trebetasunak eta haien azterketa **s. 12**
- Eranskinak: Autoebaluazio-formularioa **s. 17**

# 1. EGILE ESKUBIDEEN IKASGELARAKO ONGIETORRIA: MATERIALAREN AURKEZPENA

Egile Eskubideen Ikasgelako material didaktikoaren helburua da irakasleak eta ikasleak ekoizpen pertsonalera bultzatzea, egile-eskubideak errespetatuz.

Egile Eskubideen Ikasgelako onlineko zerbitzuak ([www.auladerechodeautor.org](http://www.auladerechodeautor.org)) material didaktikoa biltzen du, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan egile-eskubideei buruzko ezagutzak irakasteko eta irakasleak eginkizun horretarako trebatzeko.

Ikasgelan, egitearen eta praktikatzearen poderioz ikasten dira egile-eskubideak, eta zenbait ataza eta azterketa ludiko eta interaktibo egiten dira horretarako.

## IRUDIA. Egile Eskubideen Ikasgelako materialak

	Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza (Batxilergoa eta Lanbide Heziketa)	Irakasleen prestakuntza eta irakasleen etengabeko prestakuntza
MATERIALAK	<b>Lehen Hezkuntzako 1. eta 3. mailen artekoak</b> - Memoria-jolasa - Bilatu © sinboloa	Egile-eskubideei buruzko trebetasun-praktikak <b>1</b> Egile-eskubideei buruzko ezagutzak - Galdetegia	Material pedagogikoa Aholku didaktikoak Material didaktikoak Egile-eskubideen gida
	<b>Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. mailen artekoak</b> - Zortearren erruleta	<b>2</b> Askotariko materialak erabiltzeko trebetasunak Egia ala gezurra jolasa	Egile-eskubideei buruzko trebetasun-praktikak
	<b>Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak</b> - Galdetegia - Artistaren jolasa	<b>3</b> Informazioa bilatzeko trebetasunak eta irakurketa-gaitasun kritikoa - Bingo-jolasa	<b>1</b> Egile-eskubideei buruzko ezagutzak - Galdetegia <b>2</b> Askotariko materialak erabiltzeko trebetasunak - Egia ala gezurra jolasa
	<b>Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailak</b> - Galdetegia - Musikalaren ataza - Egile-eskubideak kudeatzen dituzten erakundeei buruzko memoria-jolasa	Azken azterketa Ikaslearen ekoizpen pertsonalerako ibilbidea Irakaslearen materialak	<b>3</b> Informazioa bilatzeko trebetasunak eta irakurketa-gaitasun kritikoa. - Bingo-jolasa Azken azterketa
	Irakaslearen materialak	Autoikaskuntza-jarraibideak	Autoikaskuntza-jarraibideak
	Laburpenak eta jarraibideak	Laburpenak eta jarraibideak	

Materiala lau zatitan banatzen da: Lehen Hezkuntzako eta DBHko materiala, irakaskuntza-mailen arabera banatuta, eta Batxilergorako, Lanbide Heziketarako eta irakasleak trebatzeko materiala. Jolasak eta azterketak etapaz etapa aurrera egiteko diseinatuta daude, Bigarren Hezkuntzako ikasleek DBHko ariketekin finkatu ahal izan ditzaten ezagutzak eta trebetasunak, haien prestakuntza-mailako materialaren aurretik. Irakasleen prestakuntzari dagokionez, ikastaroek eta ariketek Egile Eskubideen Ikasgelako egile-eskubideei buruzko material-sorta bat edo banakako jolasak eta azterketak izan ditzakete, egile-eskubideen ezagutzak eta trebetasunak aberasteko eta berrikusteko. Irakaskuntzan, egokia da, halaber, ideia pedagogikoekin eta materiala erabiltzearekin ohitzea irakaskuntza-maila eta hezkuntza-modu guztietarako. Horretaz gainera, lanean ari diren irakasleak animatu egiten ditugu egile-eskubideei buruzko ezagutzak eguneratzera, eta, horretarako, irakasleak trebatzeko material-sorta eta beren prestakuntza-mailako material didaktikoa egitera adoretzen ditugu. Hartara, eguneratu egingo dituzte ezagutzak eta trebetasunak.

Lehen Hezkuntzako eskolek beren jolas-materiala dute. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetarako eta irakasleak trebatzeko materiala egile-eskubideen hiru trebetasun praktikatzean datza, eta, jolas-eginkizunak ez ezik, amaierako azterketa bat ere planteatzen da horretarako. Bigarren Hezkuntzarako eta irakasleak trebatzeko ariketak eta materialak ikasleak paketea modu independentean osatu ahal izateko diseinatuta daude; adibidez, ikasturte edo ikasketa-unitate baten parte gisa.

Jolas-ariketez eta amaierako azterketaz gainera, Bigarren Hezkuntzako materialak ikaslearen ekoizpen pertsonalerako ibilbidea biltzen du (5. IRUDIA); hari esker, modu independentean osatu ahalko ditu proiektuak, baina, aldi berean, nolabaiteko gidaritzarekin. Ibilbidean, ekoizpen pertsonalaren prozesua errepasatzen da urratsez urrats, eta barnean hartzen du lanaren etapa bakoitzean beharrezkoak diren egile-eskubideak menderatzea. Ibilbideak ikasleen lana gidatzen eta babesten du, eta informazio-koadroak ez ezik materiala eskuratzeko estekak ere baditu. Horri esker, hainbat ikaskuntza-ataza egin daitezke, edozein izanik ere ikastaroa, ikasgaia edo gaia.

## **2. EGILE-ESKUBIDEAK IKASKETETAN, MULTI-ALFABETATZEAREN PARTE GISA ETA IKASKUNTZA-TREBETASUNAK IKASTEKO**

Egile-eskubideak ikasleen eta irakasleen eguneroko bizitzaren parte dira modu askotan. Teknologia digitalak, bereziki, aukera berriak sortu ditu irakaskuntzak modu askotan aprobeitza ditzan gaikako arloen edukia eta ekoizpenak. Bestalde,


teknologiak partikularren eskura ipini ditu askotariko tresnak eta plataformak, eta, haien bidez, edukiak eta ekoizpen motak ekoitzi, editatu eta banatu daitezke, baita jaso eta kontsumitu ere. Eguneroko ekoizpenak edukien ekoizpena erraztu eta dibertsifikatu du, baina, aldi berean, areagotu egin du jakintzak aberasteko premia, dela informazioa sortzeko mekanismoekin loturik, dela komunikazioaren alderdi etiko eta legalen ezagutzaren inguruan.

Beraz, egile-eskubideen arloko trebetasunak gaitasun eguneratuak dira, egoerari aplikatu dakizkiokeenak, ekoizpenerako beste trebetasun asko bezala. Testuak, obrak eta bestelako sormen-edukiak interpretatzeko eta idazteko trebetasunak gizaki modernoaren hezkuntza zibikoaren parte dira: eguneroko ikaskuntzarako tresnak eta helburuak lortzera bideratutako azterketa. Haien gaitasunak aberastu egiten dira apurka-apurka, Lehen Hezkuntzatik aurrerako ikaskuntza-lanetan aurrera egin ahala. Irakaslearen zeregina da maila bakoitzean egile-eskubideen trebetasunak kontuan hartzea, bai eta ikasleek eskuratutako trebetasunei erreparatzea ere. Hori horrela, egile-eskubideak ikaskuntzaren parte natural bihurtzen dira.

Mugimenduan dauden irudiek, soinu-mota ezberdinek eta sinboloek osatutako esanahi-multzoak, idatzizko hizkuntzaz gainera, egoera eta ingurune desberdinetan etengabe interpretatzen eta ekoizten ditugun «testu» guztiak dira. Etengabe ari gara ekoizpen berriak sortzen, lehendik existitzen direnetatik abiatuta: lehendik prest dauden idazkiak, irudiak, sinboloak eta soinuak birziklatzen eta konbinatzen ditugu, sormena baliatuz, geure testuen eta ekoizpenen beharren arabera erabiltzeko. Testuen bidez beste testu batzuk kontzienteki aipatzea, hau da, testuartekotasuna, esanahi berriak sortzeko bitartekoetako bat ere bada. Egile-eskubideen mende daude testu-jarduera horiek guztiak eta esanahi propioen ekoizpena; eskubide horiek bermatzen dizkiote obraren eta jatorrizko testuaren egileari bere ekoizpena kudeatzeko eta erabiltzeko eskubideak, eta, kasuaren arabera, haiek bermatzen diote konpentsazio egoki bat bere lan sortzailearen emaitzengatik.

Irakurketa-, idazketa- eta komunikazio-trebetasunei buruzko egungo pedagogiaren arabera (multialfabetatzea), testu-formen interpretazioa eta erabilera areagotzen ari da pixkanaka, testuak erabiltzen diren testuinguru eta inguruneetan. Hori horrela, egile-eskubideen gaineko trebetasunak hobeto ikasten dira ikaskuntza-zereginekin ere: ikaskuntza-inguruneen sorta zabal batean eta hainbat ikastaro eta ikasgaitan lan eginez. Ikasketa-plan berriek zenbait alderdi azpimarratzen dituzte: gaikako ikasketak, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, sormen-ekoizpena, benetako egoerak baliatzea ikaskuntza-ingurune gisa, ikaskuntza komunitarioa, eta ikaskuntzan ingurune errealak eta birtualak gainjartzea, edozein izanik ere hezkuntza-modua. Egile Eskubideen Ikasgelaren onlineko lana ere ikasteko modu berri horietan oinarritzen da.

## IRUDIA. Multialfabetatzea ikaskuntzan eta ikasketetan



**Multialfabetatzearen parte da egile-eskubideen oinarriak ulertzea eta aplikatzea, bai eta egile-eskubideak errespetatzea ere. Aldi berean, ikasketa-plan berrien helburuen eta edukien parte ere bada, irakaskuntza-maila eta irakasgai guztietan.** Ikaslearen gaitasunean oinarritutako irakaskuntzak eta informazioa modu independentean bilatzeak eta sortzeak erraztu egiten du sorkuntza, eta horrek ekoizpen-sorta zabala eragiten du: testuak, arte bisualetako lanak, bideoak eta multimedia-lanak (3. IRUDIA). Ekoizpen sortzaileari dagokionez, askotariko gailuak eta softwarea baliatzen dira, bitarteko digitalak erabiltzen dira, eta hainbat iturri maneiatzen eta interpretatzen ikasten da. Ikasgai eta eduki guztietan islatzen da proiektuetan oinarritutako lan-mota hori. Produktuen eta gailuen erabilera arduratsua eta egile-eskubideak aitortzea funtsezko alderdiak dira, ikasteko trebetasunak ikasketan plan berrien arabera eskuratu ahal izateko.


Etengabe handitzen ari da proiektuetan eta fenomenoetan oinarritutako ikaskuntza; izan ere, ikaskuntzaren pertzepzioek eta inguruneek ikaslearen esperien-

tziak, informazioaren bilaketa eta aplikazioa nabarmentzen dituzte, baita ikasteko trebetasunak eskuratzea ere. Ikaskuntza orokortu egin da Interneten eta gailu teknikoaren garapenarekin eta irisgarritasunarekin. Horrek esan nahi du inoiz baino errazagoa eta arinagoa dela norberaren trebetasunak garatzea eta ezagutzak eskuratzea, giza dokumentazioaren historia osoan izandako errazena. Ikaskuntza jada ez dago denboraren, lekuaren eta beste ingurumen-faktore batzuen mende, eta, beraz, gero eta pertsona gehiagok dituzte eskura informazio-iturri gero eta askotarikoagoak eta moldakorragoak.

Tresna teknikoei eta informazioa bilatzeko erraztasunari esker, ikaskuntza hezkuntza formala baino askoz eremu zabalagoan gertatzen da, eta (testu)liburuak irakurtzea baino askoz modu gehiago daude horretarako. Ikaskuntza horren nonahikotasunaren ondorioz, azterlanen eta, oro har, bizitzaren kudeaketaren parte gero eta garrantzitsuago bihurtu da informazio fidagarria eta erabilgarria hautatzea, biltzea eta kritikoki berrikustea (irakurtzeko gaitasun kritikoa), bai eta informazioa aplikatzearekin eta erabiltzearekin lotutako ezagutzak eskuratzea ere. Horrenbestez, hezkuntzak ikasleei tresnak eman behar dizkie beren lanaren gaineko ezagutza menderatzeko eta ikaskuntza-ingurune mota berriek eskatzen dituzten trebetasunak garatzeko (trebetasun zibiko deitzen zaie). Ikaskuntza-prozesuak menderatzea emaitza bera bezain garrantzitsua denean –gutxienez–, horrek aldaketak eragiten ditu ikaskuntza-ingurune formaletan, lan-metodoetan eta materialetan, bai eta ikaskuntzaren ebaluazioan ere. Beraz, ikaskuntza-prozesuen kontrola irakaslearen lanaren funtsezko parte da, eta hori sustatzeko diseinatu da egile-eskubideei buruzko material hau, ikasleen ekoizpen pertsonalaren ibilbide-etara bideraturik.



### 3. IRUDIA. Multialfabetatzea ikaslearen ekoizpen sortzailean



### 3. EGILE-ESKUBIDEEN GAINKO TREBETASUNAK IRAKASTEA

Testuak eta beste ekoizpen batzuk sormenez erabiltzeak arau etikoak eta legezkoak eskatzen ditu, eta beharrezkoa da horiek aplikatzea. Irakasleen jardunean, erabiltzailearen, ekoizlearen eta hezitzailearen funtzioetan hauteman behar dira egile-eskubideekin lotutako ezagutzak eta trebetasunak.

#### IRUDIA. Irakasleen eginkizunak egile-eskubideen arloan

1. irakaslea, obren erabiltzaile gisa	2. irakaslea, bere materialaren egile gisa	3. irakaslea, egile-eskubideen gainko trebetasunen irakasle gisa
<p>Irakasleak testu (material) mota asko <b>erabiltzen ditu</b> bere irakaskuntzan.</p>	<p>Irakasleak material didaktikoa <b>ekoizten du</b>, eta beste pertsona batzuek egindako materialak txertatzen material hartan, hala nola irudiak eta testua.</p> <p>Irakasleak, printzipioz, eskubidea du prestatzen duen materialaren erabilerarekin zerikusia duten gaiak definitzeko.</p>	<p>Bere lanbidean, irakasleak egile-eskubideen jakintza gainean <b>trebatzen ditu</b> ikasleak, edozein dela ere prestakuntza-maila edo edozer espezialitatetan lan egiten duela ere.</p> <p>Bere lanean, irakasleak <b>eredu gisa ere jokatzen du</b>; ez ikasleen aurrean bakarrik, baizik eta gurasoen eta oinarrizko beste komunitate batzuen aurrean ere bai, ikaskuntza obrak eta testuak nola erabiltzen diren irakasteko eta materialen ekoizpen pertsonalaren parte gisa.</p>

Irakaskuntzan, irakasleak beste pertsona batzuen testuak eta ekoizpenak erabiltzen ditu (benetako material didaktikoak deritzenak), eta bestek idatzitako material pedagogikoa baliatzen du. Horretaz gainera, irakasleak bere material didaktikoa prestatzen du, dela berak baliatzeko, dela ikastetxearen erabilera komunerako. Irakasle bakoitzak egile-eskubideen eta obren erabileraren trebetasunen irakasle gisa ere jarduten du bere lanbidean, bai eta horiek errespetatzeko eredu gisa ere. Funtzio horiek guztiek egile-eskubideen ezagutza objektibo

boa eskatzen dute, ikastetxeetarako lizentzia-aukerak barne, eta beharrezkoa da, orobat, ezagutzak beren irakaskuntzan nola aplikatu jakiteko trebetasuna, esaterako, ikaskuntza-inguruneak antolatzean eta material didaktikoak lantzean. Horretaz gainera, ezinbestekoa da egile-eskubideekin lotutako trebetasunak eta edukiak irakasteko gaitasun pedagogikoa izatea ere. Egile-eskubideen trebetasunak lotuta daude bitartekoen alorreko hezkuntzarekin eta bitartekoe-kin trebetasunak irakastearekin, eta, horretaz gainera, ikasgai eta gai guztien irakaskuntzaren parte ere badira. Gailuak, teknologia, aplikazioak eta plataforma elektronikoak etengabe ari dira eboluzionatzen, eta, beraz, areagotzen ari dira egile-eskubideei buruzko ezagutzak menderatzeko eskakizunak ere.

Egile-eskubideen alorreko trebetasunak eguneratu beharra dago arian-arian, eta egile-eskubideen arauak ezagutzearekin ez ezik ezagutza sortzeko etikarekin ere lotuta daude: besteren lanarekiko errespetua, manera onak eta diskrezioa. Egile-eskubideen gaineko trebetasunak, alderdi askotan, multialfabetatzearekin daude lotuta, bereziki, irakurketa-gaitasun kritikoarekin eta iturrien kritikarekin, bai eta komunikazio bisual egokiarekin ere; haren barnean sartzen dira mezu bat orientatzeko eta mugatzeko trebetasunak, eta netiketa bera. Egile-eskubideek, irakaskuntzan erabilitako eta ekoiztako materialari ez ezik, aisialdiko sormen-ekoizpen osoari ere eragiten diote. Ekoizpen sortzaileari dagozkion trebetasunak ezarri egiten dira, eta praktika bihurtzen, eskola-ikaskuntzaren eta astialdiko ikaskuntzaren arteko mugak ere desagertzen diren heinean egile-eskubideen gaineko trebetasunei dagokienez. Helburua da ikasleak praktikan trebetasunen baliagarritasunaz eta onurez konbentzitzea, ikastetxean ikasitakoa benetan erabiltzen has daitezen eta ikasitakoa eguneroko bizitzan ere erabilgarria izan dakien.

Egile Eskubideen Ikasgelako materialean, egile-eskubideei buruzko gaiak jorratzen dira, informazioaren azterketaren, bilaketaren eta kudeaketaren zati gisa. Materialak egile-eskubideen oinarrizko trebetasunak eta ezagutzak estaltzen ditu, eta ikastaroen eta ikasgaien irakaskuntzaren parte gisa emateko adibideak eskaintzen ditu. Aldi berean, egile-eskubideen arloko ezagutzak eta gaitasunak eguneratzeko jarraibideak ematen dizkie irakasleei eta Irakasle Eskolako ikasleei.

## 4. EGILE-ESKUBIDEEN GAINKO TREBETASUNAK ETA HAIEN AZTERKETA

Egile-eskubideekin lotutako ezagutzak eta trebetasunak multialfabetatzearen parte dira; izan ere, egile-eskubideekin lotutako gaitasunak beharrezkoak dira ekoizpen sortzailean: 1) edukiak erabiltzeko, 2) edukiak ekoizteko, eta 3) edukiak banatzeko. Ekoizpen sortzaileko prozesuak proiektuaren lan-faseei jarraitzen die, zeinak sormen-produkzioko materialean erakusten baitira (5. IRUDIA). Eredu hori proiektuetan oinarritutako ikaskuntza-zereginekin lan egiten den edozein ikastarotan erabil daiteke. Ikaslearen ekoizpen propiorako landutako ereduak gidatzen du egile-eskubideei buruzko ezagutzen aplikazioa egoera praktikoetan.

## 5. IRUDIA. Ikaslearen ekoizpen pertsonalerako ibilbidea



Honela banatzen dira egile-eskubideei lotutako gaitasunak: egile-eskubideei buruzko informazioa kudeatzea eta aplikatzea, askotariko materialak erabiltzea, informazioa bilatzea eta irakurtzeko gaitasun kritikoa izatea.

## 6. IRUDIA. Egile-eskubideen gaineko gaitasunak

1. Egile-eskubideei buruzko ezagutzak	2. Askotariko materialak erabiltzeko trebetasunak	3. Informazioa bilatzeko trebetasunak eta irakurketa-gaitasun kritikoa
<ul style="list-style-type: none"> <li>- egile-eskubideen kontzeptuak, egile-eskubideak errespetatzea</li> <li>- egiletza, originaltasun-atalasea eta egile-eskubideak babestea</li> <li>- «ni egile gisa», hau da, norberaren ekoizpen sortzaillea</li> <li>- obrak erabiltzea eta banatzea, baimen- eta lizentzia-aukerak, obren edizioa, eskubide moralak</li> <li>- irudiak hartzea eta argitaratzea, bai eta irudiak ateratzeko eta intimitatea eta ohorea babesteko baimenak ere</li> <li>- egile-eskubideak urratzea, erantzukizun penala eta zehapenak</li> <li>- irispide publikoa eta ikusgarritasuna sare sozialetan</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- erreferentziak eta iturriak aipatzea</li> <li>- testuak, irudiak, musika, soinua, zuzeneko irudia eta horien konbinazioak erabiltzea ikaskuntza-zereginetan</li> <li>- obrak argitaratzea; eskubide moralak eta ondare-eskubideak</li> <li>- baimen-aukerak eta Creative Commons lizentzia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- ikaskuntza-zereginetarako informazioa bilatzea (proiektuak eta saiakerak, hainbat formatako aurkezpenak, minitesiak, bideoak eta beste multimedia-aurkezpen batzuk)</li> <li>- informazioa ebaluatzea, hainbat iturri alderatzea, informazioaren proportzionaltasuna, iturrien kritika</li> <li>- informazioaren jatorria ikertzea; bigarren eskuko iturrien erabilera deritzona</li> <li>- gaiari edo fenomenoari buruzko ikuspegi desberdinak eta haiek biltzea</li> <li>- plataformen eta zerbitzarien arteko eduki-trukea</li> <li>- iturriak aipatzea</li> </ul>

Ariketa bakoitzerako funtsezkoa den trebetasun-tartea aldatu egiten da. Material ludikoan, funtsezkoak dira egile-eskubideei buruzko ezagutzak, baina, ekoizpen pertsonal aplikatua gauzatzean, egoera praktikoak eta haiekin zerikusia duten materialen bilaketa, interpretazioa eta ekoizpena hartzen dira abiapuntutzat, eta lehentasuna dute ikasleen dokumentuekin (testuak, iturriak, materialak) lotutako irakurketak, interpretazioak eta ekoizpenak, eta jarduera horiek tartekatuta egiten dira egile-eskubideei buruzko informazioarekin.

**Egile-eskubideen gaineko trebetasunak gaitasun-sorta zabal bat dira: egile-eskubideen kontzeptuak menderatzea, haietan jasotako ezagutzak ikaskuntza-zereginetan aplikatzea eta jarrera positiboak izatea:** egile-eskubideei buruzko ezagutzak lanetan eta ekoizpen sortzailean aplikatzeko nahia. Beraz, trebetasun-multzo bat da, emozio eta aldarte oso positiboak barnean hartzen dituena.

Egile-eskubideen trebetasunak Bigarren Hezkuntzan txertatzeko modu bat da, esaterako, gaika banatzea ikasturteetan (kontsultatu Batxilergorako eta Lanbide Heziketarako ikasmaterialak). Hartara, ikasleak, bere lanaren bidez, aukera izango du egile-eskubideen trebetasunak praktikan zerekin erlazionatzen diren jakiteko. Ikasketa guztietarako trebetasun-multzo bat da: hainbat ikasgai eta ikaskuntza-entitatetan praktikatzen eta behar izaten da, eta ez aurkezpen edo tesi bat egiteko bakarrik.

Egile-eskubideak eredu deszentralizatu baten bidez irakasteko, beharrezkoak dira, orobat, ikastaro jakin batean bereizita praktikatzen diren trebetasunak eta, horretaz gainera, egile-eskubideak oro har irakastea ikaskuntza-zereginak ebazteari dagokionez (adibidez, bideo-muntaketak edo aurkezpenak). Egile Eskubideen Ikasgelako materialak aukera polita eskaintzen du horretarako, jolas-txantiloiekin eta proiektuetan lan egiteko laburpenekin. Ikaskuntza autoebaluazio-formularioa erabiliz indartzen da (atxikita dago), zeinean, edukiak sortzeaz eta iturrien erabileraren irismenaz gainera, ekoizpen pertsonaleko materialaren ebaluazioan eta ikaskuntzan bertan baloratu beharreko elementuen artean ager baitaitezke, bistan denez, egile-eskubideen gaineko trebetasunak.

Egile Eskubideen Ikasgelako jolasetan oinarritutako egile-eskubideen gaineko materialean, bildurik dago bai problemen ebazpen praktikoa, bai soluzioaren oinarritzko kontzeptuei buruzko informazioa. Gidabaimenaren tankera berean dago pentsatuta: ikasle batek esperientzian eta ezagutzan oinarritutako trebetasunen «lagin» jakin batzuk eman behar ditu egile-eskubideen diploma eskuratu ahal izateko. Jolasak lorpen partzialak ditu, zeinak material hezitzailez babestuta eta plataforman bildutako informazioan oinarrituta baitaude; besteak beste, hainbat gairi buruzko informazio-saioak.

Egile Eskubideen Ikasgelako materialak, halaber, aholku didaktikoak ere badi-tu, egile-eskubideei buruzko trebetasunak unitate gisa edo zatitan irakasteko, ikaskuntza-proiektu eta -atazei dagokienez, eta Bigarren Hezkuntzarako autoi-kaskuntzako jarraibideak eta irakasleen prestakuntza ere biltzen ditu. Autoi-kaskuntzako gidaren laguntzarekin, ikasleak edo irakasleak egile-eskubideak bere kabuz mendera ditzake, Egile Eskubideen Ikasgelako materialak erabiliz.





# EGILE-ESKUBIDEEN GAINKO AUTOEBALUAZIOA EGILE ESKUBIDEEN IKASGELAN



Izena: .....

Ikasturtea/taldea: .....

Formulario honek egile-eskubideei buruz dituzun ezagutzak ebaluatzen lagunduko dizu, bai ikasgelako materiala aztertu aurretik, bai ondoren. Ebaluazioaren bidez, ikasgelako ariketekin ikasitakoa egiaztatuko duzu. Ebaluazio-formularioaren bi zatiak bete ondoren, formularioen amaieran dauden irizpideekin alderatu ahalko dituzu egile-eskubideekin lotutako trebetasunak, ezagutzak eta zure jarrera. Irizpideek lagunduko dizute egile-eskubideei buruz eta oraindik praktika behar duten gaiei buruz dakizuna ulertzen.

## EGILE-ESKUBIDEEI BURUZKO EZAGUTZAK MENDERATZEA, IKASGELAN PRAKTIKATU AURRETIK

Ebaluatu zure gaitasunak (trebetasunak, ezagutzak, motibazioa, jarrera eta jarduera) honako trebetasun haue-tan. Justifikatu zure balorazioa.

a. Informazioa bilatzeko trebetasunak eta irakurtzeko gaitasun kritikoa

b. Materialak erabiltzeko trebetasunak

c. Egile-eskubideei buruzko ezagutzak

d. Beste batzuk; esaterako, esperientziak, egile-eskubideei buruzko oharrak

## IKASGELAN PRAKTIKATU ONDOREN, EGILE-ESKUBIDEEI BURUZKO EZAGUTZAK MENDERATZEA

Hasieran bete zenuen ebaluazio-formularioan, berrikusi ikasgelan praktikatu aurretik egile-eskubideei buruz zenituen ezagutzak. Orain, baloratu berriro zure gaitasunak (trebetasunak, ezagutzak, motibazioa, jarrera eta jarduera), ikasgelaren ondoren. Justifikatu zure balorazioa.

a. Informazioa bilatzeko trebetasunak eta irakurtzeko gaitasun kritikoa

b. Materialak erabiltzeko trebetasunak

c. Egile-eskubideei buruzko ezagutzak

d. Beste batzuk; esaterako, esperientziak, egile-eskubideei buruzko oharrak

## EGILE-ESKUBIDEEN GAINKO TREBETASUNAK ETA HAI EK MENDERATZEA: EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

	A. INFORMAZIOA BILATZEKO TREBETASUNAK ETA IRAKURTEKO GAITASUN KRITIKOA	B. MATERIALAK ERABILTZEKO TREBETASUNAK	C. EGILE-ESKUBIDEEN BURUZKO EZAGUTZAK
BIKAINA	<p>Hainbat iturritako informazioa bilatzen du, eta modu kritikoan ebaluatzen ditu informazio-iturriak eta haie-tako edukiak.</p> <p>Irakurle kritikoaren galderak erabiltzen ditu, eta iturrien berri ematen du.</p> <p>Badaki iturriak behar bezala aipatzen.</p> <p>Gai da informazioaren jatorria argitzeko eta bigarren eskuko iturri deritzenak saihesteko.</p>	<p>Konbinatzen eta erlazionatzen du hainbat iturritatik datorren informazioa.</p> <p>Askotariko ikuspuntuak ematen ditu gai edo fenomeno bati buruz, eta gauza da haiek lotzeko.</p> <p>Badaki askotariko ikasgaiak ekoizten, hala nola tesiak, aurkezpenak, bideoak, saiakerak.</p> <p>Badaki edukia askotariko plataforma eta zerbitzarrietan partekatzen.</p> <p>Errespetatzen ditu egile-eskubideak obrak eta materialak erabiltzean eta aldatzean.</p> <p>Badaki baimenak eta lizentziak erabiltzen obrak erabiltzean eta edukiak partekatzean.</p> <p>Jasotzen ditu ekoizpenari berari eta produkzio-prozesuari buruzko iruzkinak, eta hurrengo azterketa-zereginean baliatzen du hori.</p>	<p>Badakizki egile-eskubideen oinarriko kontzeptuak.</p> <p>Errespetatzen ditu egilearen eskubide moralak obrak erabiltzean eta aldatzean.</p> <p>Ulertzen ditu egile-eskubideak urratzeari dagokionez dituen erantzukizunak.</p> <p>Ulertzen du intimitatea eta ohorea babestea zer den.</p>
ONDO	<p>Badaki informazioa hainbat iturritatik bilatzen eta modu kritikoan ebaluatzen, neurri batean behintzat.</p> <p>Gai da iturriko erreferentziako informazioa argitzeko.</p> <p>Badaki iturriak behar bezala aipatzen.</p>	<p>Konbinatzen du hainbat iturritatik harturiko informazioa eta gai edo fenomeno baten ikuspuntu desberdinak hautemateko.</p> <p>Ikasketa-jarduera desberdinak ekoizten ditu, hala nola bideoa, aurkezpena eta saiakera.</p> <p>Zenbait plataformatan partekatzen ditu bere ekoizpenak.</p> <p>Ulertzen du egile-eskubideek zer-nolako garrantzia duten beste pertsona batzuen lanak eta materialak erabiltzean.</p> <p>Badaki baimenak eta lizentziak erabiltzen obrak erabiltzean eta edukiak partekatzean.</p>	<p>Badakizki egile-eskubideen oinarriko kontzeptuak.</p> <p>Ulertzen ditu hainbat egoera praktikotako egile-eskubideak, argitalpen-metodoen eta baimenen ikuspegitik.</p> <p>Ulertzen du egile-eskubide moralak zer garrantzi duten obrak erabiltzean eta aldatzean.</p> <p>Ulertzen du egile-eskubideak, intimitatearen babesa eta ohorea urratzeak ondorioak ekar ditzakeela.</p>
HOBETU BEHARRA DAUKA	<p>Noizbehinka bilatzen du zenbait iturritako informazioa.</p> <p>Ez da gai iturriak baloratze-ko, ezta informazioa modu kritikoan lortzeko ere.</p> <p>Gabezia handiak ditu iturriak aipatzean.</p>	<p>Gaiari buruzko ikuspuntu bat bakarrik hautemateko da gauza, edo ikuspuntuek ez daukate loturik elkarrekin.</p> <p>Ez da gauza gai bat koherentziaz lantzeko.</p> <p>Azterketa-lan mota bera egiten du etengabe.</p> <p>Bere ekoizpenak plataforma beretan bakarrik partekatzen ditu.</p> <p>Ez daki obrak eta materialak baliatzeko behar diren erabilera-baimenak edo lizentziak lortzen edo erabiltzen.</p>	<p>Egile-eskubideen oinarriko kontzeptuen zati bat bakarrik ezagutzen du.</p> <p>Ulertzen du egile-eskubideek lan sortzailea babesten dutela, baina ez daki baimenak edo lizentziak koherentziaz maneiatzen obrak eta materialak erabiltzean, aldatzean edo partekatzean.</p> <p>Ez ditu kontuan hartzen egile-eskubide moralak obrak erabiltzean edo aldatzean.</p> <p>Gabeziak ageri dira erantzukizun penala ulertzean eta intimitatea eta ohorea babestean.</p>

